

Alderdi komunistaren arduradunei jazarpen* pertsonalik egingo ez diela esanez hasten da. Eta, segidan, Marchais jaunak berari buruz egin duen erretratuan, ez duela berak bere burua han ikusten ez ezagutzen aitortzen du.

Hala ere, bereak esan gabe ez da geldituko. Gauzak garbi utzi nahi ditu. Ez da zilegi* —esan du— Programa Bateratua izenpetu duten hiru partiduetatik bat beste biak epaitzeko etengabeko tribunala bilaka dadin. Areago,* kontradikzio bat ikusten du Mitterrandek, komunistek alderdi sozialistari egiten dioten salakuntza doblean: batetik, alderdi sozialista eskuinarekin geroz eta adiskideago dagoela; eta bestetik, alderdi komunistari bezeroak* eta botuak lapurtzen dizkiola. Zertan gara? esaten die Mitterrandek. Kontradikzio moduko hori egon ba dagoela uste dut. Baina ez da hori inportanteena. Garrantzikoena ez baita zer dioten, zergatik dioten baizik.

Mitterranden jokaldi hau nola epaitu dute komentaristek?

René Andrieu jaunak «L'Humanité» egunkari komunistan zera idatzi du, Marchais jaunari ez diola deuse-tan* ere Mitterrandek erantzun. Baina, Giscard atakatu duenez, ba daitekeela eboluzio gisako* zerbaiten hastapenean* egotea.

Gainerako ohargile gehienek, eskuindarrak aparte, aho batez aitortzen dute, Mitterrandek ez duela oliorik sutara bota nahi izan, hain zuzen etorkizuna prestatu edo salbatu gura duelako. Segurtasunez, baretasunez agertu da Mitterrand. Alderdi sozialistaren Idazkari* bezala ezezik,* ezker antolatu osoaren Buzi bezala ere agertu nahi du



François Mitterrand
Alderdi sozialistaren idazkari nagusia

Bere «image de marque» hori arretaz* jagoten* du. Beraz, altura hartzen du, burruka eta tiki-miki guztien gainetik gelditzen da. Borondate politiko argia da hori. Taktika abila. (Joan Mari TORREALDAY.)

Eritrea: askatasunerako burruka

Haile Selassie-ren enperadoregoa hiltzer* dago. Negus ahalguztidunaren boterepeko nazioek beren askatasuna aldarrikatzen* dute. Ethiopiako junta militarrek, demokrazi oinharriak ezarri nahi ukan* arren, ez ditu galdu nahi aurreko inperialismoak lortutako etekinak.*



Eritrea, bere hizkuntza, ohitura, historia eta erlijio ezberdinak gorabehera,* iparraldeko «probintzia» huts bat besterik ez da ethiopiar nagusi berrientzat. «Lehen-go lepotik burua» diote haietaz eritrearrek, demokrazien nazioartekotasunaz mesfidatuz.

Baina Osman Saleh Sabbi-k, Eritreako nazional askatasunerako fronteko buruzagiak, Addis Abebako junta militarrek Eritrearen askatasuna onhartzeko ez badu, «Itsas Gorriak bere izena izanaz frogatuko* duela» esan du. Eta esan ezezik,* egin ere bai, zeren* eritrear gerrillek, Ghadafi koronelaren militar laguntzaz, gorriak ikuserazi dizkiote ethiopiar armadari* leku guztietan; honez gero 3.000 pertsona hil dira gerra honetan, eta Asmara, Eritreako hiriburua, 14.000 gerrillerok setiatu dago.

Balantza, orain arte, eritrearren alde dago argiro; eta edozein egunetan monduak beste Estatu nazional bat ezagutuko du, honez gero zenbait Estatu onhartua: **Eritrea.** (Patxi URTIAGA.)

Berri laburrak

- Enpresak berritu nahiz dabilta Frantzian. Proposamendu batzu* egin berriak dira. Lantegia komunitate bihurtu nahi lukete. Artakidegoraino* iristen* dira. Baina mihi gaiztoek diotenez, agintea ez da hauzitan memento batez ere jarri.

- Peru asaldaturik* ibili da. Liman matxinada* edo. Erre eta honda* ibili dira talde batzu hiriburuko hauzune zenbaitetan. Erreboltatu batzu, eta haien babesean lapur zenbait ere bai.

Gobernu militar iraultzaile atudefinituaren ustez, eskuindar indarrak ziren hor mugierazle. Banzer eta Pinochet jaunek gidaturiko Bolivia eta Chileren ondoan, Peru zaldar bat bezala da nonbait.

Egunkari batek CIA famatu hori tartean ibili dela ere idatzi du. Eta Washingtonen Peruko enbaxadan norbaitek esan duenez, «ez da ezinekoa».

- Londreseko alderdi komunistaren bulegoetan mikrofonoak hatzeman dituzte. Noiz ezkutaturik? Berrikuntzan ari zirelarik, ohol tartean aurkitu dituzte. Egin dezagun kontu, 1948.ean egin zela azken dekorazioa. Harez gero funtzionatzen egon ote dira? Eta nork jarriak? Jakin inork ez daki. Baina G. Mathews jaunak, alderdiko ohargileak esan du, britainiar poliziaren maliobra bat datekeela.* CIA ere aipatu du, noski.

- Margaret Thatcher andrea, kontserbatzaileen Pasionaria deitzen dute. Margaret hori kontserbatzaileen buru da orain. Alderdi kontserbatzailea garaile aterako balitz, hurrengo auteskundeaz gero bi andere izanen liriateke Britainia Handiaren gidari: Elizabeth erregina eta Margaret lehen ministrua.

Zer gauza gertatzen diren (barka, gerta litezkeen) Emakumearen Nazioarteko Urte honetan! (Joanes LEKERIKA.)